

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Euskara ikasteko 2020-2021 ikasturteko dirulaguntzak murriztu izanari buruzkoa

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko azaroaren 16an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2019an, Donostiako Udal Gobernuak 275.848,75 euroko diru kopurua esleitu zuen donostiarrei edota Donostian lan egiten dutenei euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzak emateko, 2019-2020 ikasturtean.

Aurten, ordea, Udal Gobernuak 248.079 euroko diru kopurua esleitu du donostiarrei edota Donostian lan egiten dutenei euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzak emateko, 2020-2021 ikasturtean. Hau da, Udal Gobernuak 27.769,75 euro murriztu du Udal Gobernuak herritarrei euskara ikasteko bideratuko dien laguntza.

Horri buruz galdetuta, zinegotziak berretsi egin du murrizketa, baina zuritu egin du esanez are handiagoa izan zitekeela murrizketa, % 20ra artekoa. Euskara ikasteko dirulaguntzen diru saila blindatu ez izanari buruz galdetuta, zinegotzi ordezkariak erantzun du hori eginez gero beste diru sailen batean % 20ko murrizketa baino handiagoa egin beharko zutela. Gainera, egindako murrizketaren aringarri edo, aipatu du Jaurilaritzak ere ematen dituela B2 mailara arteko dirulaguntzak, aditzera emanez herritarrek badaukatela HABE erakundeari eskatzea.

Udal Gobernuak ez du kontuan izan herritarrek nolako zailtasun ekonomiko handiak dituzten une honetan, eta izango dituzten datozen hilabeteotan. Erabaki horrekin, Udal Gobernuak zaildu egingo die herritarrei euskara eskuratzea. Ez zaigu erabaki egokia ezta justua ere iruditzen.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari blindatu dezala eta ez dezala murriztu donostiarrentzako edota Donostian lan egiten dutenentzako euskara ikasteko eta hobetzeko 2020-2021 ikasturterako dirulaguntza.

Donostia, 2020ko azaroaren 20an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia